

Farapi Kooperatiba

Ekonomia feministaren aplikazio praktikoa enpresa baten esparruan

TESTUINGURUA:

Sistema kapitalista eremu publiko eta pribatuaren banaketan oinarritzen da. Horrek esan nahi du langileok behartuta gaudela enplegua bizitzaren beste edozein alderidiren aurretik jartzera, gure eguneroko zereginak planifikatuz eta egituratuz ideia honen arabera: zainketa-lanak (eremu pribatuari atxikiak) ezin dutela lan-eremua inbaditu. Kasu askotan, lehenespen hori egin behar izateak behartzen gaitu kontratu-lanaldia gainditzeko duen eskuragarritasuna izatera.

2019an, Farapi Kooperatibatik erabaki genuen gure lan egiteko modua eraldatu nahi genuela, gure ideologiarekin bat zetorren egitura bat sortuz: gerentzia zuen kooperatiba izatetik hierarkizatu gabeko kooperatiba izatera igaro ginen, lantaldeetan antolatuz. Ordutik geroztik, eredu bizigarri baten alde ari gara lanean, pertsonen eta taldearen ongizatea erdigunean jartzeko, proiektuaren bideragarritasuna eta gure ingurunean sortzen duen eragina kontuan hartuta.

Ekonomia feministak eskaintzen duen markoa funtsezkoa izan da lan-eredu berri hori bultzatzeko. Hori praktikan jartzeko eta gure errealitatean aplikatzeko, gure lana egituratzen duten hainbat dimentsio adostu ditugu. Halaber, dimentsio horiek praktikan jartzen lagunduko diguten prozesuak eta tresnak sortu ditugu.

DIMENTSIOAK:

Zaintza

Zaintzaz ari garenean, ongizate emozionalaz eta fisikoaz ari gara, zaindua eta zaintzaile den subjektu bat behar duena (subjektua bost esfera hauetatik ulertuta: pertsona, taldea, proiektua, inguru soziala eta inguru naturala).

Botere harremanak

Horizontaltasunetik aztertzen botere-harremanak, erabakiak hartzerakoan desberdinkeriak eta hierarkiak ekidinez.

Ahalduntzea

Kolektibotasunarekin lotura estua du, pertsonen, taldearen, proiektuaren eta inguru sozial eta naturalaren artikulaziotik.

Denboraren kudeaketa

“Langile idealaren” eredua zalantzan jartzen dugu, eta enpleguaren eta arlo pertsonalaren arteko interdependentzia aitortzen duen denbora-kudeaketa egiten dugu. Pertsonen, taldearen, proiektuaren eta inguru sozial eta naturalaren interesak eta beharrek orekatzen saiatzen gara.

Aldaketarako begirada irekia


Geldiarazten gaituzten herentzia sozialik eta propiorik gabeko proiektu baten alde egiten dugu. Bilakaera eta aldaketa ezinbestekoak dira inertiak hausteko.

Ikaskuntza


Aldaketa-prozesu kontziente batek baldintza zehatzak ezartzea eskatzen du, ikaskuntza gure eraikuntzaren oinarri nagusietako bat izan dadin.

Koherentzia

Uste dugu praktikaren eta teoriaren arteko koherentzia funtsezko balioa eta baldintza dela gure proiekturako. Ez dugu beti nahi gurekoen koherentzia guztia lortzen, baina gure DNaren parte da hori etengabe bilatzea.



IBILBIDEA:



TRESNAK:

Gure tresna gehienak 'Bizi on' lan-taldetik garatu ditugu. Talde hori arduratzen da kooperatibaren eguneroko funtzionamenduan zaintza txertatzeaz eta bost esferen (pertsona, taldea, proiektua, ingurune soziala eta ingurune naturala) arteko oreka bermatzeko beharrezkoak diren aldaketak egiteaz.

 Banakako elkarriketak Gure egitura integratutako espazioa dira, kooperatiban zaintza esplizituki txertatzea bilatzen duena. Banakako elkarriketak egiten ditugu taldearen eta proiektuaren ongizateari buruz, eta gure dimentsioei lotutako banakako edota taldeko beharrik eta nahiak aztertzen ditugu.	 Proiektuak aukeratzeko tresna Excel bat da, Farapira iristen diren lankidetzaren proposamenak baloratzeko hainbat irizpide biltzen dituena. Inkoherentziak detektatzeko aukera ematen digu, honako elementu hauek kontuan hartuta: bideragarritasuna, motibazioa, kontziliazioa, bizigarritasuna, etab.	 Aurreikuspen kronogramak eta orduen jarraipena Excel eta Acceseko hainbat tresna dira. Taldearen lan-karga erakusten duten eta proiektuak egiteko orduan gure eskuragarritasuna baloratzeko laguntzen digute. Ez dira lan-jarduna kontrolatzeko erabiltzen, gure lan-kargen aurrean ongizatea bermatzeko baizik.	 Bizipena eta lana Asteroko talde-bilerak nola gauden eta lana nola bizi dugun azaltzen duen erronda batekin hasi genituen, lan-kargak berrantolatze eta pertsonen eta, ondorioz, taldearen ongizatea ziurtatzeko.
 Zaintza espazioa Bulegotik kanpo antolatutako espazioa da, eta dinamizazioa kanpoko bidelaguntzarekin egiten dugu. Farapin egiten den lanaren eta egunerokoan sortzen diren talde-dinamiken dimentsio emozionalenak eta erlazioenak jorratzen ditugu bertan.	 Proiektuak ebaluatzeko tresna Proiektu bat amaitu ondoren, balorazioa egiteko eskema bat jarraitzen saiatzen gara, honako asmo hauekin: ebaluazio-irizpideak harmonizatzea; talde-lana eta zehaztutako rolak ebaluatzea; eta ikaskuntzak ateratzea.	 6+1+1 lanaldia Gure lanaldiaren orduak birbanatu dugu. Gaur egun, 6 ordu dihardugu kooperatibaren lan produktibo eta erreproduktiboan; ordu bate dugu atsedenerako eta talde-kohesiorako; eta beste ordu bat libre utzi dugu bakoitzaren bizitzaren pertsonal, sozial eta politikorako.	 Hileroko jarraipen txostenak Hilero txosten bat egiten dugu, eta bertan, datu ekonomikoak berrikustez gain, erabilera-balioaren eta kooperatibaren aldaketa-balioaren arteko orekaren jarraipena egiten da.

ETA ORAIN ZER?

Atzera begiratu eta egindako lan guztia ospatzen dugu. Gure ideiekin koherentea izaten saiatzeko ahalegin handia egin dugu urteotan, eta gaur egun lana eta ekonomia ulertzeko dugun modua eraldatu dugu.

Hala ere, **ibilbidea ez da hemen amaitzen**. Oraindik erronka asko ditugu lantzeko, hala nola botere-harremanak, arrazakeriaren aurkako ikuspegia edota esparru ekonomikoko beste gai batzuk.

Prozesua eta lortutako emaitzak sistematizatzen ari gara, ikasteko dugun gaitasuna indartzeko, **beste enpresa eta erakunde batzuk inspiratzeko** eta haien errealitatean aplikatu ahal izateko.

Beste erakunde batzuekin eginiko elkarriketa eta elkartrukeari esker, espero dugu ekonomia feministaren lan-eremuan aplikatzeko **eragile izatea** eta eraldaketa bultzatzen laguntzea.

CONSULTA EL PÓSTER EN CASTELLANO:

